

M^a CONCEPCION UGALDE IZETA Bergarako Udaleko Idazkariak

EGIAZTATZEN DU: Udalbatzak 2018ko uztailaren 23an egindako ohiko bilkuran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuela:

“Ogasun batzordeak honako proposamen hau egin du:

Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean gastu partiden arteko transferentzia bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den espedientea aztertu dugu.

Kontuhartzailtzako arduradunak egindako proposamena aztertu da, baita gainerako txosten, ziurtagiri eta jarduketak ere. Hortik ondorioztatu da adierazitako aldaketa aurrekontuaren exekuzioa arintzeko lagungarria izango dela eta horren izapidetzea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin.

Hori hala izanik, batzorde honek bidezkotzat jo du organo eskudunak onartzea kreditu transferentzia, 48.977,00 eurokoa, bai gehitutako kredituei (altak) dagokienean, bai transferitutako kredituei (bajak) dagokienean, proposamenean ageri diren aurrekontuko gastu partiden xehetasun berarekin.

Kreditua transferitutako duten gastu partidak (bajak)

<i>Partida</i>	<i>Izena</i>	<i>Hasierako kreditua</i>	<i>Murrizketa</i>	<i>Amaierako kreditua</i>
1 0330.481.326.50.01 2018	TRANSFERENTZIAK _ UNED - ARRUNTAK	64.000,00	8.977,00	55.023,00
1 0900.226.241.00.06 2018	JARD. EKINTZK - ENPLEGU SUSTATU	128.000,00	40.000,00	88.000,00
	GUZTIRA	192.000,00	48.977,00	143.023,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

<i>Partida (*)</i>	<i>Izena</i>	<i>Hasierako kreditua</i>	<i>Gehikuntza</i>	<i>Amaierako kreditua</i>
1 0900.481.433.00.01 2018	TRANSF ELK ENPLEGU GARAPENA	50.000,00	40.000,00	90.000,00
1 0340.211.337.20.01	ERAIKINAK GAZTERIA	17.500,00 (*)	8.977,00	26.477,00
	GUZTIRA	67.500,00	48.977,00	116.477,00

Hala eta guztiz ere, aipatutako organoak bidezkotzat jotzen duena ebatziko du.

Hori ikusita, Udalbatza osatzen duten 17 udalkideetatik bertaratutako 16ek aho batez erabaki dute goian jasotako udal aurrekontuaren 5. kreditu-aldaketa onartzea.”

Eta horrela jasota gera dadin, luzatzen du egiaztagiri hau, Bergaran, bi mila eta hemezortziko abuztuaren zazpian.

